

IKUSPEGI DEKOLONIALETIK ERE SALAGARRIA DA BLACK FRIDAY IZENeko KONTSUMO-ORGIA

Black Friday-rik ez litzateke bezperan ez balitz amerikarrek ospatzen duten *Thanksgiving* edo Esker Emate Egunik. Kapitalismoak bizirauteko ezinbestekoa duen muturreko kontsumoaren egun horri begiratzeaz gain, bezperakoari ere so egitea inportantea da. Ofizialki kolonoen eta amerindiarren arteko senidetasuna markatzeko unea baldin bada, errealitatean, bertako autoktonoen genozidioaren adibide historikoa dugu. Historia horren berri ematen dabilta autoktonoak, Esker Emate Eguna 1970az geroztik Doluaren Eguna izendaturik. Europar zuri gisa ezagutu beharreko historia.

▬ JENOFA BERTHOKOIRIGGIN

Zehazki zergatik eta noiztik *Black Friday* ala Ostiral Beltza AEBetan finkaturik duten ez dago argi. Hori bai, *Thanksgiving* edo Esker Emate Eguna deitu besta handiari lotua da, eta urtero azaroko azken ostegunaren biharamunean dute. 1951an agertzen da *Black Friday* izendapena, justuki *Thanksgiving*-aren biharamunean langile anitzek hartu pausa-egunek nagusiei eragindakoa irudikatzen. 1961ean haatik beste fenomeno bat izendatzeko baliatu zuten: familia-apairuaren biharamunean bakoitza berera itzultzeak zein pausa eguna Eguberriko opariak erosteko baliatu izanak eragin auto eta jende metaketak aipatzeko baliatu zuten Ostiral Beltza izendapena. Dendak 1970eko hamarkadan hasi ziren beharpenak proposatzen, urtez urte fenomenoaren areagotuz gaur egungo muturreko heineraino.

Azken urteetan gurean ere errotuz doa, milaka eta milaka euskaldunek baliatzen dituztela interneten edota saltegietan proposaturiko beharpen erakargarriak. Noski eta eskerrak, AEBetan bezala, Ostiral Beltzak akuilaturiko kontsumo-jendarte kapitalista jo mugan dute hemengo anitzek ere, boikoterako arrazoi sozial, ekonomiko zein ekologikoetan oinarriturik.

Baina ostiral horren bezperakoari begiratuz gero, are salagarriagoa bilakatzen dira *Thanksgiving* eta honen biharamuna. "Familia amerindiar anitzentzat egun biziki konplikatu da Esker Emate Eguna;

bestelakoa ezin daiteke izan benetako historia eta kolonoen eta autoktonoen arteko lehen topatzei buruzko kontakizun faltsuak ezagutzen direnean". Lyla June autoktonoaren hitzak dira, Massachusettseko Plimotheko Landa Lekua deitu museoan plazaratutakoak.

Museo honek kontatzen du Plymoutheko koloniaren heltzea –Amerika deitu lurraldean kokaturiko bigarren kolonia, lehena Jamestown izan zelarik–. 400 urtez atzera egin behar dugu Esker Emate Egunarena ulertzeko: 1621ean egindako bazkari erraldoi bat du oinarrian, Historia ofizial hegemoniko eta zuriaren arabera, autoktono eta kolonoen arteko apairu alai bat, senidetasunaren eta elkartasunaren sinbolo. Ederra da kontaturikoa: 1620an lurreraturiko kolonoak ez ziren ez ihiztari abilak, ez laborari jakintsuak ez eta ere arrantzale onak. Hori horrela, goseteak eraman zituen anitz, zifra ofizialei segi bertaraturiko erdiak. Ondoko urtean, Wampanoag herrikoak gurutzatu eta hauen partetik jasotako jakintza eta kontseiluei esker biziraun eta egokitu ziren bertakoari. Guztiaz eskertzeko unea izan omen zen *Thanksgiving*.

Mezu hori pasarazi dute urtez urte, hamarkadaz hamarkada eta azkenean, mendez mendez, eta gaur egun oraindik elkarbizitza eder baten sinbolo da gehiengoarentzat. Tradizioaren barne da, etxe guztietan erroturikoa da Esker Emate Eguna. Menua ere kontakizun horren arabera dute: garaian bezala indioilo

fartzitua –izan Etxe Zurian zein auzo pobreako etxebizitza hertsian, guztietan indioilo fartzitua–.

Daily Geek Show komunikabidearen *Derrière la fête de famille de Thanksgiving se cache l'un des pires génocides de l'histoire* ("Historiako genozidio odoltsuenerako bat gordetzen da *Thanksgiving* familia-bestaren baitan") erreportajeak xeheki berridazten du alta 400 urteko gertakizuna.

SARRASKI BATEN OROITZARREA

"Mito federatzaile" bat Matthieu Garcia erreportajearen egilearen hitzetan. "Partekatzearen eta nazio batasunaren sinbolo, oroitzarre hau amerindiarren ondorengoen iraintze bat da; eskoletako liburuek aipatzen ez duten Pequoteko sarraskiaren neurritz kanpoko laudatze batean gara". Hain zuzen, hiru eguneko besta hau egon, egon bazen ere, ez zen errepikatu. Eguna markatu eta urtero errepikatzeko erabaki ofiziala ordea, 1637an hartu zuten kolonoek.

Zer gertatu ote zen 1637ko maiatzaren 26 hartako Pequoteko sarraskian? John Mason kapitainak herria inguratzeko manua emanik, kolono eta haien aliatuek herria erre eta bertatik bizirik ateratakoak hil zituzten. Orotara, 600-700 bat hil historialarien arabera. Sarraski odoltsua bihurtu zitzaizen *arto berdearen dantza* ospatzeko autoktonoen egun sakratu hura. 1636ko udazkenaz geroztik gerra giroa zen nagusi kolono ingeles eta berta-



DOLU EGUNA BIHURTURIK

1970EAN THANKSGIVING "DOLU EGUNA" IZENDATU ZUTEN AUTOKTONO AKTIBISTA BATZUEK. IRAGANEAN JASANDAKO SARRASKIEZ OROITZEKO ETA GAUR EGUNGO DISKRIMINAZIOAK SALATZEKO EGUNA DUTE. OSATZE PROZESUAN EZINBESTEKO UNEA. ARGAZKIA: YOON S. BYUN.

ko Pequoten artean, gorputzen eta lurren kolonizazioari erresistentzia bideratzen zietelako. Sarraskiaren biharamunean Massachusettseko badiako koloniaren gobernadoreak *Thanksgiving* edo Esker Emate Eguna finkatu zuen: "Gaurtik aitzina Esker Emate Eguna ospatuko dugu, 700 gizon, emakume eta haur eliminatu izanaz eskertzeko Jainkoa".

"Gogoetatu *Thanksgiving* apairua kari eskertza zeri bideratzen zabilatzaten" gomedia luzatzen du *republicoflakotah.com* webgunean argitaratu *Cooking the History Books: The Thanksgiving Massacre* ("Sukaldatu Historiako liburuak: *Thanksgiving* sarraskia" erreportajeak. 8.000 inguru ziren Pequotak kolonoen etorrera aitzin, eta hortik hamabost urtera 1.500 ziren, europarrek ekarritako eritasunek gehiengo handia hilik. Geldi-

tzen ziren ia guztiak hil zituzten 1637ko sarraski horretan. "Egia honen berri ematea biziki inportantea da, amerikarren bizian garrantzia handia duen Esker Emate Eguna gezur anitzetan oinarritzen delako", Lyla Junen hitzetan.

1970ean Dolu Eguna izendatu zuen eguna autoktono aktibisten United American Indians of New England egiturak eta orduz geroztik, jasandako genozidioa oroitzeko eguna dute –sendatze eta osatze prozesuan garrantzia handiko unea-. Haiak ez badute egiten, inork ez duelako egiten. Horren adibide justuki, Dolu Eguna orain duela 50 urte finkatu izana. Urte horretan ospaturiko kolonoen lehorreraztearen 350. urtebetetzea kari Wamsutta Frank James autoktonoak plazaraturiko diskurtsoa zentsuratu zioten. Erantzun gisa, Dolu Eguna izena jarri zioten aza-

roko azken ostegunari. Egia, aitortza eta erreparazioan zentratzeko eguna izatea nahi lukete.

Baina, hain da errotua familia-bazkari alimale honen ohitura, non eta autoktonoen artean ere ospatzen dabilzan. Hori horrela, boikota baino gehiago, *Thanksgiving* modu dekolonialean ospatzeko bide bat proposatzen dabil Nephi Craig sukaldari autoktono ospetsua: bertako mozkin indigenekin sukaldatzea. Beste bi gomendio ere ematen ditu: arbasoei esker ditugun paisaiak eta lur emankorrak eskertzea eta oroitzea "bakerantz daraman bidea eraiki daitekeela sukaldatuz eta jenez". Minari begietara begiratu eta osatze dekolonialean urrats bat gehiago egiteko bidea hor ere. Eta zuri europarrontzat arrazoi bat gehiago eskuz-esku duen Ostiral Beltzari bizkarra erakusteko. ●

ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

f t